

itsasondo^{2.0}

Herriko aldizkaria (((8. zk))) apirila-ekaina 2010

Eskerrik asko, Mikel!

Iñaki Larrañaga: herriko apaiza eta zerbitzaria
Gurutz Sarasola, "Lotsati"
Itsasondoarrak Ordizia rugby taldean
Kaleko inkesta



2010a etorri zaigu ate joka, eta urratu berri dugun urte hau ilusio eta asmo berriekin hasi nahi izan dugu. Badakigu krisiak gure artean gogor jo duela eta hainbat dira horren ondorioak jasaten ari diren herritarrak; askok beraien lanak galdu edo eta kinka larrian ikusten dituzte. Krisi globalizatuaren garai honetan, hara non, eta Euskal Herriak aro berri baterako bideari ekin dio eta ilusioz beteriko garaiak bizi ditu; aspaldiko gatazka hau gainditzen laguntzeko zirikitu berriak irekitzen ari direla dirudien honetan, herritarrei dagokigu gure aldetik herri bezala aktibatu eta lan egitea, herri honek dituen asmo eta nahiak gauzatu daitezen. Ezin dugu aukera berri hau pasatzen utzi, bakoitzak gure herri, lantoki, talde eta norberaren ahalmenen arabera prozesua bide onera eramango duen harresi soziala eraiki beharra daukagu. Beste Euskal Herria hobeto bat posible delako, denok batera lan egin dezagun eraikitzeko.

Jada bi urte dira Itsasondo 2.0 aldizkaria sortu eta lehen alea kaleratu genuenetik. Udaletik sortu zen ekimena, bertan hartutako erabakiak eta herriko notiziak jendarteratzeko bitarteko baten beharra ikusita. Dirudienez, hasierako asmoak bete dira, herriko komunikazio tresna nagusietako bat izatera iritsi baita eta zuen artean izan duen harrerak proiektuak honekin aurrera jarraitzea animatu gaitu.

Baina oraingoan urrats bat haratago eman nahi izan dugu aldizkaria herrira zabalduz. Helburu horretara iristeko bidean, ezinbesteko jotzen dugu herritar oro egitasmo honetan partaide bilakatzea. Asmoa gauzatzeko forma ezberdinetako edukiz jantzi dugu zortzigarren ale hau. Honela, gaurtik aurrera irakurgai izango dituzue, besteak beste, herriko hainbat pertsona ezagunei eginiko elkarrizketa eta pasadizoen kontakizunak, herriko haurtzaindegi eta eskolaren inguruko berriak, zuei herritarrei eginiko elkarrizketak, inguruko bazterrak ezagu-tzeko ibilaldi neurtuak...


Eskuartearen duzuen ale honetan makina bat kontu dituzue irakurgai: herritarren artean aski ezaguna den Iñaki Larrañagari eginiko elkarrizketa, itsasondotarrak Ordiziako errugbi taldean utzitako oinatzaren inguruko artikulua, eta beste hainbat kontu interesgarri.

Espero dugu guztion gustuko izatea. ■

Itsasondoko biztanleriaren bilakaera

2009. urtean azken urteetako jaiotza tasarik altuena izan dugu Itsasondon, bertan 17 haur jaio direlarik 2009. urtean zehar. Hauek dira Itsasondoar berrien izenak:

Pablo, Ezequiel, Unai, Nahia, Arale, Oier, Haizea, Oier, Nour, Nahia, Liher, Tiago, Naiara, Unax, Iker, Garazi eta Oihan.



Aurkibidea

- 03. **Agenda 21.** Usurbilgo atez ateko zabor bilketa.
- 04. **Udaleko berriak.**
- 05. **Herri eskola.** Inauteriak.
- 06-07. **Haur eskola.** Goxoki gutxiago eta zereal gehiago gure umeentzat.
- 08-11. **Elkarrizketa.** Iñaki Larrañaga.
- 12. **Berdintasuna, Gazteria eta Gizarte gaiak.**
- 13. **UEMA.** Abizenak euskal grafiaz.
- 14. **Kale inkesta.**
- 15. **Itsasondoko aitona.** Odol emaileen istorioa.
- 16-17. **Pertsonaia.** Gurutz Sarasola "Lotsati".
- 18-19. **Zaharrak berri.** Itsasondoarrak Ordizia rugby taldean.
- 20-21. **Ibilaldia.** Itsasondo-Aldaba.
- 22. **Natur ondarea.**
- 23-25. **Kultura.**
- 26. **Liburuaren txokoa.**
- 27. **Lorezaintza gomendioak eta sukaldaritzaren errezeta.**
- 28. **Kultur agenda. Lehiaketa. Esaera Zaharrak.**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Andre Madalen*

Ale honetan bada hainbat gai: loreak, sukaldaritzaren, Iñaki apaiza, Gurutz "lotsati" edo eskolako bizitza, irakur eta jaso ezazu istorio hauen ditza beste entzunez eguneratzen baita norbere jakintza.

Pasadizoak, gertakizunak, anekdoten kokapena, hainbat lagunek egin digute benetako agerpena, eskergarria, garrantzizkoa adierazi digutena kontakizunak berresten baitu urteetako bizipena.



Atez ateko hondakin bilketa Usurbilen

Hiru urte barru, 2013an, Gipuzkoako zabortegi guztiak itxiko dituzte, beraz, hondakinak beste era batetan kudeatzen hasi behar dugu Gipuzkoan. Gipuzkoako Hondakin Partzuegoarentzat eta Diputazioarentzat, hondakinak kudeatzeko sistema berriaren ardatzetako bat izango da Zubietan kokatzekoa den errauste planta. Urtean 260.000 tona hondakin erretzeko prestatutako egitura diseinatu du Partzuegoak. Falta zaizkion baimenak eskuratu, eta, udan bertan, Zubietako mendietako lurra mugitzen hasi nahi du.

Egin dituzten aurreikuspen berrien arabera, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa, 2016. urteari begira hondakin %57a berreskuratzea eta %43 erraustea da.** Hau da, 495.000 tona hiri hondakinetatik 214.000 tona inguru errauste plantara eramango lirateke.



Goierriko zenbait udal ordezkari (Legorreta, Gabiria, Itsasondo, Ormaiztegi, Ordizia, Olaberria, Ezkio-Itsaso eta Zaldibia) martxoak 6an, Usurbilera egindako bisitan.

Aurreikuspen horien aurrean, ordea, Usurbilek erakutsi du, errausketan oinarritzen ez den beste hondakin kudeaketa bat posible dela. Usurbilen, 2009ko martxotik martxan da hondakinak atez ate biltzeko sistema. Herritarren parte-hartzearen bidez diseinatu eta adostutako sistema horretan, asteko egun zehaztetan biltzen da gai bakoitza (organikoa, paper eta kartoia, ontzi arinak eta erreusa). Familia

bakoitzak, gainera, berari dagokion lekuan utzi behar ditu hondakinak, eta horrek banaketa modu egokian egitea ahalbidetzen du. Modu horretan, udalerrian zeuden edukiontzia desageratu egin dira kaleetatik (beirarena bakarririk mantendu da). **Atez-ateko bilketa sistemaren bitartez, eta oraindik urtebete pasa ez den denbora tarte horretan, batez beste hondakin %82,33 birziklatu da.**

Herritarren parte-hartzea

Atez ateko bilketa sistema hori herritarren parte-hartzearen bidez osatu da: sistema ezarri aurretik informazioa zabaldu, zalantzak argitu eta ERABAKIAK HARTZEKO hainbat bilera antolatu ziren auzoka. Bilera haietan zehaztu ziren asteko egun bakoitzean bildu beharreko hondakin mota, ordutegia, tasak, beharren araberrako soluzioak, e.a.

Behin atez ateko bilketa sistema martxan jarri eta zenbait hilabetez probatuta, herri galdeketa burutu zen pasa den otsailaren 27 eta 28an. Hona hemen emaitzak:

Usurbildarren %70,23ak eman du botua. Emandako botu horietatik %56,23 agertu dira atekoaren alde, %42,95 bosgarren edukiontzia duen sistemaren alde eta %0,76 lau edukiontziko sistemaren alde. Botuen % 0,06 zuria izan da eta 25 botu baliogabeak izan dira.■

	SASIETA MANKOMUNITATEA (2009ko lehen sei hilekoa)	USURBIL ATEZ ATE (2009ko martxoa-uztaila)
GAIKA BILDUTAKOA (birziklatzen dena)	%26	%82,33
ZABORTEGIRA BOTATAKOA	%74	%17,67



Udaleko kontuetan ere, egun bizi dugun krisi egoeraren eragina nabarmendu da. Izan ere, zenbait diru-sarrera, maila handian jaitsi dira, adibidez eraikin berrien eraikuntzatik jasotzen diren zergei dagozkienak, baino beherakada garrantzitsuena Udalek Foru Aldunditik, Udalen Finantzaketarako Foru Fondotik, jasotzen den diru kantitatean eman da. Foru Fondoaren Itsasondoko Udaleko 2009ko likidazioa -94.818,20 euro izan da, beraz erabakitakoaren arabera, Itsasondoko Udalak 2011-2012 eta 2013 urteetan 94.818,20 euro itzuli beharko dizkio Foru Aldundiari.

2009ko urteko aurrekontua 1.268.000 eurotakoa izan da, eta aurrekontu horren kargu finantzatu dira honako obra eta inbertsio hauek:

- Goiko Kaleko urbanizazio obrak
- Gaztetxeako obra
- Gela multimedia
- Jubilatuen lokaleko obra
- Baserri bideen eta luizien konponketa
- Itsasondoko Haurtzaindegi berria
- Argi indar sareko hobekuntzak

Aldiz 2010eko aurrekontuak zenbateko txikiagoa du 900.000 euro, erakundeetatik jasotzen diren dirulaguntzak ere maila handi batean jaitsi baitira. Aurrekontu hori Udalak 2010eko martxoaren 4an egindako osoko bilkuran onartu da, eta orain, jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean.

Aurtengo urteko aurrekontuan, aurreikusirik dagoen egin beharreko obra garrantzitsuena Itsasondoko udalletearen eraberritzea da. Obra hau Landa Gipuzkoa 32 programaren barne sartuta dago eta Foru Aldundiko dirulaguntza izango du. Aurrekontua 700.000-800.000 euro ingurukoa izango da eta dirulaguntzak estaltzen ez duen zenbatekoa Udalak jarri beharko du, eta horretarako mailegua eskatu beharra izango dela aurreikusten da.

Beste zenbait berri

Mediku-etxeako etxebizitza

Kale Nagusia 7ko 2. solairuan Udalak duen etxebizitza errentan atera ondoren, urtarrilaren 14tik aurrera bertan bizitzen jarri da familia bat.

Diru-laguntzak

laz bezala, aurtengo urtean ere, Espainiako Gobernuak Lana eta Ekonomia sustatzeko plan berri bat onartu du, eta Itsasondoko Udalak, GI-2131 errepideetik abiatuak Goiko-kale (Izaskun Pentzioaren) pareko espaloiak eta sarrera konpontzeko obretarako laguntza eskatu du. Dagoeneko eskatutako dirulaguntzatik 54.545 euro onartu direnez, obrak hurrengo hilabeteetan hastea aurreikusten da.

Eusko Jaurilaritzak eta INEMek langabezian dauden pertsonak kontratatzeko diru-laguntzak emateko egindako deialdietan oinarriturik, Udalak dirulaguntza eskariak aurkeztu ditu, langabezian dauden pertsonak kontratatzeko.

TDT edo LTDA

Aspalditik entzuten ari gara, orain arteko telebista seinalea bertan behera geratuko dela eta telebista digitalaren garaian sartuko garela. Ba aldaketa hemen dugu jada.

TDT sistemara pasatzeko datak ez omen daude finkatuta baina martxoaren 10etik apirilaren 3a bitarte izango da. Posible omen da kanal batzuk kentzen joatea martxoaren 10etik aurrera, baina erabateko itzalaldia apirilaren 3an izango da. Hemendik aurrera TDTa izatea beharrezkoa izango da telebista ikusi ahal izateko.■

2009ko likidazioa eta 2010erako aurrekontua



Inauteriak

Otsailaren 12an inauteriak ospatu genituen Itsasondoko eskolan. "Munduko herrialdeak" hartu genuen gai bezala eta lau taldetan banatu ginen:

Txikienak euskaldunez mozerrotu ziren; 1. eta 2. mailakoak errumaniarrez; 3. eta 4. mailakoak brasildarrak izan ziren; eta, 5. eta 6. mailakoak mendaldeko bakeroak.

Jaialdiari hasiera emateko, Errumaniako dantza bat eskaini ziguten, eta ondoren, brasildarrak beste bat. Kanta ezaguna zen: Aurrera mutilak, aurrera Gipuzkoa... baina Brasileko erritmoan.

Horien ondoren gure txanda iritsi zen. Guk country estiloko kanta bat dantzatu genuen "No rompás mas mi pobre corazón."

Azkenik txikienak beste dantza bat egin zuten. "Hamaika koloretan dantzan" izena zuen. Dantza hori lehenengo txikiek egin zuten, gero haur guztiak elkartuta eta azkenik guraso batzuk ere animatu ziren.

Dantzen ondoren, aukiarren jolasa egin genuen. Eta bukatzeko, merienda goxoa: kruasan bat eta txokolatea. Mmmmm!!!! Ze goxoa!!

Ea argazki hauetan ezagutzen gaituzuen! ■



01



02



03

- 01 Handienak bakeroz mozerrotu ginen eta "No rompás más..." dantzatu genuen
- 02 Hain dotoreak ote dira benetako errumaniarrak?
- 03 Euskaldunak eta tripaniak. Horrelakoak gara gu!

Brasildarrak dantzan, beste guztiok begira.



Goxoki gutxigo eta zereal gehiago

Itsasondoko haurreskola berria martxan jarri, eta ideia berriak sortu zitzaizkigun guraso eta herrikoekin harremanak sendotzeko. Horien artean, hitzaldiak antolatzeari, gurasoen intereserako izango direlakoan. Horrela lehen hitzaldia izan genuen urtarrilaren 21ean herriko Gaztelekuan. Biolur elkartearen eskutik, "haurren elikadura osasuntsua produktu ekologikoekin" gaia aztertu genuen.

Itsasondoko haurreskolako hezitzaileak

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizuegu hitzaldira etorri zineten guztiei, izan ere guretzat esker handikoa da gure ideiek interesa pizten dutela eta jende desberdinengana iristen garela jakitea.

Sabrina Pato eta Eli Trojaolak kontu interesgarriez hitz egin ziguten eta herriko aldizkarian horren berri ematea erabaki dugu jende gehiagorengana irits dadin. Hona beraz arratsalde horretan hitz egin zenaren laburpentxo bat.

Biolur elkarteak **Ekolapiko** deituriko proiektu bat sortu du Donostialdean, eskola batzuen laguntzarekin. Bertako jangeletan elikadura ekologikoaren aldeko apustua egin dute, eta oraingoz, gurasoak oso gustura omen daude emaitzekin.



Elikadura haurren garapenean, hazkuntza eta osasunean, faktore garrantzitsua da. Elikadura osasuntsu eta orekatu batek, bizitzako etapa horretan behar dituen energia eta ezinbesteko elikagai guztiak eskainiko dizkio haurrari, osasun hobezinarekin isla izango direnak. Gaur egungo gizarte ereduak dela eta, haur gehienek eskolan egiten dute eguneko otordurik garrantzitsua, bazkaria alegia. Beraz, beharrezkoa da bazkari horretatik gutxienez eguneko elikadura beharren ehuneko 35a jasotzea. Hasiera hasieratik elikatze ohitura osasuntsuak integratzea garrantzitsua da.

Elikagaien jatorriak berebiziko garrantzia du. Ekologikoa izateak, elikagai horrek hondakin kimikorik ez duela esan nahi du. Ekologikoa izateak elikagaia ekoizterako orduan naturaren erritmoak kontuan hartu direla esan nahi du, eta ekologikoa izateak elikagai horrek bizitasun handia daukala esan nahi du.

4 urtetako ikerketaren ondoren (2004-2008) emaitzek elikagai ekologikoak jatea bizitzeko era bat baino gehiago dela ondorioztatu dute. Jaki ekologikoek konbentzionalek baino %40 antioxidatzaile gehiago dituzte, eta zientziaren ustetan, minbizi eta bihotzeko gaixotasun arriskua gutxitu dezakete. Bestalde, burdina eta zinka bezalako mineral onuragarri gehiago dituztela ere ondorioztatu dute.

Horrez gain, ekoizpen konbentzionalak sortzen dituen ingurugiro arazoak nabarmen gutxitzen ditu. Frogatutako beste gauza batzuen artean, ekoizpen ekologikoetan pestizidarik ez erabiltzean, horrek ozono kapa ez desagertzearen alde egiten duela da.

Beste gai garrantzitsu bat garaian garaiako elikagaiak kontsumitzea da. Gaur egun, fruta eta barazki gehienak urte guztian zehar aurki ditzakegu komertzioetan. Bere ekoizpena urtaroen erritmoarekin datorrela ahazten ari gara. Baina zergatik eman behar diogu lehentasuna sasoiko barazkien kontsumoari? Arrazoi ezberdinak daude:

- Zaporetsuagoak dira (tomate bat udaran edo neguan jan zein desberdina den denok dakigu).
- Osasuntsuagoak dira (garaian garaiako fruta eta barazkietan, bitamina eta mineralen ekarpena handiagoa da).
- Merkeagoak dira (bere garaian prezio baxuagoak dituzte).
- Gutxiago kutsatzen dute (garaiaz kanpo ekoizteak fosilaren kontsumoa dakar).
- Bidezko merkataritzaren aldekoak dira (bertako nekazaritza laguntzen du).

“Jaten duguna garelako” kontuan hartuz, oso garrantzitsua da hazkuntza fase horretan inongo kutsadurarik gabeko eli-



kagaiak kontsumitzea, nahiz eta beste ohitura osasungarri batzuk garatzea ere ezinbestekoa den.

Haurren osasuna eta garapen egokiaren oinarria elikadura orekatuan dago. Gainera adin horretan haurrak duen elikadurak hurrengo urteetako osasuna baldintzatuko dio.

Hasteko, haurra jaio eta lehenengo hilabeteetan, bularreko umea da, beraz, lehentasuna duen elikagaia amaren esnea da (edo esne amatua, bularrekoa emateko ezintasuna dagoen kasuetan). Ondoren, progresiboki, elikagai talde ezberdinak sartzen joango gara: zerealak, fruta, barazkiak...talde guztiak osatzen ditugun arte. Haurrak urtea betetzen duenetik aurrera, bere elikaduraren oinarria helduaren ereduaren parekoa izan behar du: zereal integralak, fruta, barazkiak, esnekiak eta oliaba olioia izango dira eguneroko oinarri; hauen osagarriak lekari, arrautza, arrai eta haragia; eta gozoak ahalik eta gehien ekidin beharko genituzke.

OMEk proposatzen duen piramidea hau da.

Egunerokoen artean zereala dago, integrala. Oinarri oinarrian dagoen elikagaia, otordu guztietan kontsumitu beharrekoa. Hauekin batera, barazkiak daude, kontuan hartu beharrekoa, garaian garaiako

eta freskoa behar duela. Piramidearen goraka goazen heinean, esnekiak azaltzen dira (hainbat teoria dauden arren esnekiaren inguruan, kontuan hartu behar da haurra 3 urte arte bularreko umea dela). Azkenik, arraia, haragi zuria eta arrautzak daude, egunerokotasunean gutxien kontsumitu beharrekoen artean. Piramidearen puntan berriz, noizean behin jan daitezkeen elikagaiak azaltzen dira, haragi gorria, hestebeteak (enbutidoa) eta gozoak. Elikaduran adituak diren gehienek bat egiten dute, oro har, piramidearen alderantziz jarrita bizi garelakoan eta garrantzi handia ematen diote ohitura hau aldatzeari.

Hitzaldia, galdera desberdinekin luzatu zen eta entzuleen parte hartzea handia izan zen. Gustura bukatu genuen arratsaldea eta zalantzak argituta.

Datorren hilabeteetan ere, hitzaldi gehiago antolatzea da Itsasondoko Haurreskolako hezitzaileen asmoa, eta horretarako guraso edo interesa duten guztiak ideiak proposatzea gonbidatzen zaituztegu, non ikusten diren beharrak, zein gairen inguruan dagoen kezka handia...eta gu informazioa lortzen saiatuko gara.

Animo beraz eta zuen galdera, ohar edo proposamenen zain geratzen gara! ■

Gure herriko apaiza, Iñaki, oso gertutik ezagutu dugu herritar askok, beti egon delako edonori laguntzen eta denetarikoa mesedeak egiten. Baina, Iñakik, bere bizitzako ibilbide oparo horretan, anekdota ugari izan ditu, jende askok ez dakizkienak eta ondorengo lerroetan aditzera emango direnak. Gainera, ibilbide horretan, apaiz aritzeaz gain, soziologo gisa lan aparta egiten ere ibili da urte luzez, eta ekarpen aberatsak utzi ditu.

Iñaki Larrañaga

Herriko apaiza eta zerbitzaria

Zure bizitzaren hasierari helduta, non jaio zinen eta zein urtetan, Iñaki?

Lazkaon jaio nintzen, 1933an.

Lazkaon zenbat urte arte egon zintzen?

Nik zazpi urte nituen arte Lazkaon bizi izandu ginen, gero Legazpira joan ginen. Beasaingo CAF fabrikaan, 1932an, huelga baten ondoren, 1921a geroztik lanean hasi ziren langileak bota egin zituzten fabrikatik, aurrekoak ez. Baina, aita, 1918an, hamalau urterekin, hasia bazen ere, huelgan parte hartu zuelako aitzakia erabilita bota egin zuten fabrikatik; bera soldaduska egiten ari zen bitartean, hortik atera kontuak. Gero, lagun batek esan zion, lana bazegoela Legazpin (Patricio Echeverrián) eta hara joan ginen bizitzera. Geroago, berriro eraman nahi izan zuten Beasaingo CAF eta Aristrainera, baina berak ez zuen asmorik horretarako. Izan ere, harrez gero gure familia Legazpian finkatua baitzegoen.

Seminarioan noiz hasi zinen?

Seminariora 12 urterekin joan nintzen. Hasieran, Saturraranean lau urte pasatu nituen, ondoren Gasteizen beste lau urte, eta Donostian, azkenean, apaiz izatera iritsi nintzen arte.

Parisera, nolatan?

Seminarioko bi lagun, seminarioan erakutsitakoarekin ez geunden konforme, hangoa, gure ustez, ez zen nahikoa. Gure kezkek ekonomia, soziologia eta psikosoziozologia bidetik zihoazen. Horretarako, aurrena gotzainari planteatu genion, hark ez zuen entzun ere egin nahi, baina nire osaba baten lagunak, Donostian apaiz zegoenak, gotzainari esan zion, "mutil hauek gogo hori badute eta kondizio hauetan badaude moldatuko dira". Eta azkenean onartu ziguten.

Parisen?

Parisen suertea izan genuen. Okerrena... ez dakit merezi duen kontatzea... Urte bukaeran seminarioan, peregrinazio bat egiten zen herritar guztiekin Lurdesera. Gu ere joan ginen, hango abestiak zuzentzen, sano-sano, ez zen ezer pasatu. Gero, bueltakoan, salaketa batekin aurkitu ginen: esan ziguten gure asmoak atzera bota beharko genituela eta euskara erabiltzeari eta hitz egiteari utzi beharko geniola, hau da, arrastoan sartu beharko genuela. Nik esan nien, ez nuela horren beharrik ikusten, eta gainera han zegoen jende gehiena euskalduna zela eta euskaraz abesten zituela abestiak eta baita otoitzak egin ere.

Bestalde, ni izendatua nengoen seminarioan gelditzeko, txikienei abestiak era-

kutsi eta klaseak eman... Gotzainak jakin zuenean esan zuen "¿Quedarse en el seminario de San Sebastián? ¡Ni hablar!, le tendréis que mandar a otro lado".

Orduan, Getariara bidali ninduten, eta nire baitan "Hau poza!" esan nuen. Getarian egon edo Donostiako seminarioan ez zeukan parerik. Niretzat, beraz, Getariko zigor urtea, poz urtea izan zen. Hori horrela joan zen, baina handik urtebetera Parisera joatea lortu genuen.

Parisen, lau urtez egon nintzen, bi urte Unibertsitate Katolikoan soziologiako ikasketak egiten, eta beste bi urte Sorbonako Unibertsitatean, Psikologia sozial eta Demografiako lizentziaturak lortu arte. Nire beste lagunak, Ramon Iruretagoienak, *Ciencias políticas y económicas* ikasi zituen. Baina, lau urte pasatu ondoren, Paristik hona etorri ginen, "Nahikoa diagu" esanez. Hain herri handia zen Paris... Jende artean atera ezinik eta ito larri batekin geunden, alde guztietan jendea gainezka... Bazeuden beste leku lasaiago batzuk, esaterako Sena inguruak.

Paristik etorritakoan zertan jardun zenuten?

Paristik etorri ginenean, Hernaniko parrokoak eskatu zigun ea egingo genuen Hernaniko herriarentzat azterketa sozio-urbanistikoa, sozioekonomikoa eta erlijiosoa. Guk baiezkota esan genuen, eta gustura, lan eginda liburua atera eta argitaratu genuen baimen guztiekin.

Orduan Beizamako seme Bereziartua zegoen gotzain, Castilla La Manchatik ekarri zuten. Guk Hernaniko lana 1962an egin genuen, lan hura egiten genuen bitartean, beste lan batekin uztartzen genuen Donostian, asistentzia sozialeko eskolan klase ematen aritzen ginen nire laguna eta biok. Paristik 1962an etorri ginen, Hernanin bi urte egin eta Itsasondora 1964an etorri nintzen.

Herriko jendeak zerbait entzunda dauka, Itsasondora kastigu modura etorri ote zinen edo?

Kontu garbia ondorengoa da. Hernanin egin genuen lan hura, entregatu genion Hernaniko parrokoari (hau gotzainaren oso laguna edo kidekoa zen). Guri lan hura Hernaniko parrokoak eskatu zigun, esanez "Nik hau nahiko nuke eta egingo didazue mesede hori?". Orduan, lan hura oso probisional egin genuen. Guk parrokoari entregatu eta handik denbora gutxira jakin genuen parrokoak gotzainari eman ziola liburu hura eta gotzaina erabat haserretu zela. Guk esaten genuen, gauza bat zela gotzaina haserretzea, baina guri lan hura parrokoak eskatu zigula egiteko eta haiek konpondu



Euskal soziolinguistikaren aitapontekoa da. Bera izan zen lehen azterketak ekarri zituen, hitza bera ere euskaraz lehenbiziko aldiz berak formulatu zuen. Lan isil handia egin du, eta gero hori eginda etorri zaio askori. Urteetan Iñakik egindako lan oinarrikoak ez du merezi adinako errekonozimendurik izan.

**Kike Amonarriz
Argia, 1995-12-10**

beharko zutela. Baina, gotzainak gurekin egon nahi zuela jakin genuen, halako egun batean. Lagunarekin egon nintzen, eta joan orduko, gotzaina zaunkaka bezala jarri zitzaigun, oso haserre, gainera ez gintuen ezagutzen. "¿Tu quien eres? Iñaki Larrañaga, ¿Y tu? Ramón Iruretagoiena". Guk egindakoa azaldu nahi genion, "Hemos hecho este trabajo por que nos lo pidió el párroco de Hernani y por que nos parecía que le podría ayudar al párroco de Hernani y a otros muchos párrocos; además, este libro lleva su permiso, NIHIL OBSTAT (nada impide) y José Luis Ansorena dijo que en el libro no había nada que impediera su publicación". Jose Luis Ansorena zen Santiago Panizorekin batera baimeak ematen zituena liburuak argitaratzeko. Gotzainak zaunkaka segitzen zuen, "¿vosotros que os habéis creído? ¿Que vosotros me vais a decir como hay que dirigir una diócesis? ¿Como hay que hacer las cosas dentro de un obispado?", gure erantzuna, "si nosotros no hemos hecho nada y en el libro no se plantea cómo hay que dirigir una diócesis, ni cómo se debe manejar un obispado, no tenemos ningún interés en eso", eta gotzainak berean jarraitzen zuen, "pues a mí me ha llegado, que vosotros habéis venido de París, con intención de manejar la diócesis de Gipuzkoa" eta guk berriro erantzun, "Pues mire, no son nuestras intenciones y tome la determinación que le parezca, será de su responsabilidad".

Bukatu orduko, atera ginen palaziotik eta horrelaxe esan nion nire lagunari: "oraingo honetan badiagu ostikoa baintzat, alde batetik, eta ostikoa bestearentzat, beste aldetik."

Horrela gure kastigua, ni Itsasondora eta nire lagun Ramon Irungo parrokiara.

Parisen, hizkuntzarekin zer moduz moldatu zineten?

Frantsesarekin hasieran nahiko lan, gero hobeto, baina hizkuntza ikastea kosta egiten da. Lehenengo hiru hilabeteetan gutxi ikasten da, frantseseko azterketa bat ipini ziguten, esanez ez ziotela garrantzirik emango hizkuntza ondo jakiteari, baina azterketa frantses hizkuntzan egin behar izan genuen...

Behin Itsasondora etorrita?

Itsasondon apaiz bezala nengoela, nire soziologia lanarekin uztartzen hasi nintzen, handik gutxira SIADECO kooperatiba sortu genuen Ramon lagunak eta beste lagun batzuek.

Eta momentu honetan?

Erabat ez nuen utzi lana, "Txepetx"ekin kolaborazio lanak egiten segitu nuen. Bilbon "Bizi Hitza" Fundazioa sortu genuen eta elkarrekin lanean jardun genuen. Euskara ikasi eta erabiltzeko aukera izan zezaten sortu zen Kafe Antzokia izeneko, euskaldun berrientzat topaleku bat.

Hain bizitza oparoa izanda, herrian inoiz kuriositatearen bat gertatuko ziztaizun?

Behin, kontzilioak baimena eman zuen meza ematean herriko hizkuntza erabiltzeko; noski, eta guk ere aldareari buelta

eman eta jendeari begira jarri genuen, eta orduan hasi ginen mezak euskaraz ematen. Udaletxeko sekretarioa, beti kexatzen eta kexatzen aritzen zen, *"no lo podría hacer usted en castellano, es que no sabemos lo que dice"*, berak karta bat idatzi zion gotzainari, meza bat erdaraz egiteko eskatuz, eta nik ez nuen egoki ikusi. Orduan, gotzaindegitik karta bat bidali zidaten, jende horren kexarekin. Ni, orduan, sekretarioarengana joan nintzen esanez *"Si usted quiere una misa a toda costa en castellano, yo le propongo una solución el mismo sábado y en una segunda hora, a las 8:30, después de terminar la primera misa. El contrato será de un año, si a lo largo de ese año, los feligreses van disminuyendo o desapareciendo, yo suprimiré la misa."* Azkenean, meza hura moztu egin genuen, ez zen jenderik joaten, bera eta bere andrea bakarrik, baina, horrela pasatu genuen urte guztia.

Munilla gotzain berriari buruz zein irizti daukazu?

Ez dut asko ezagutzen barnetik. Zumarragan egon zenean, ospitalera joaten nintzeanean ikusten nuen, ez dut harremanik berarekin. Baina, iritsi zaidan ezagutzarekin, bere izaera, jokaera... txarra da, oso prepotentzia handikoa: *"ni naiz gotzaina eta autoritate guztia daukana, nik esandakoa egin behar da"*.

Nola aukeratzen da gotzain bat?

Gotzaina aukeratzeko, hiru eskailera daude. Lehenengo, Espainiako Nuntzioak zerrenda bat egiten du hiru hautagairekin. Zerrenda horretatik, Erroman bat aukeratzten dute. Hemen parte hartzen dute Espainiako Conferencia Episcopaleko arduradunek (Rouco Varela, Cañizares...), ekipo sendoa da erabakiak bideratzen dituen. Beraien asmoa da Euskal Herriko elizari soportea kendu eta dena zaku berean sartzea. Aurreko gotzain Setienek hortzak erakusten zizkien, eta tamaina apalagoan, baita Juan Maria Uriartek ere.

Inoiz izan duzun ametsen bat?

Itsasondo bezalako herri batean, bizi garen baldintzetan eta jendearekiko harremanak, horri eutsi eta hartu-eman horretan aritzea, hori izango litzateke helburua. Ez daukat bestelako ametsik, ametsen garaiak pasatu dira.

Eta Itsasondo bezalako herri batean zerbait aldatuko zenuke?

Aldatuko nukeena, elkartasunaren landare hori sendotuago ikustea, pertsonen arteko harremanak gozoagoak izatea, garrantzi handiena horri ematen diot. Eguneroko bizitzan, harreman horiek mamitu eta gauzatzea, herrian gustura bizitzeko, herri handietan bizitzeko ametsak alde batera utzi nituen (Parisko lau urteak). Jendearen arteko liskarrak, ezinikusiak, inbidiak... hori ez dut ondo ikusten. ■

Iñakik lau urte igaro zituen Saint Germain Des Pres-eko eliza.

Iñaki gurasoekin Parisen.





Iñakiren soziologiako lanak

Oztoporik handiena egin dudana ibilbidean, bai soziologia aldetik eta bai apaiz bezala, askotan gurutzatu dira, baina ez dira paralelo joan, ibilbide eszentriko edo atipikoa eraman baitut. Beste apaiz batzuk eraman duten ibilbidearekin zerkusirik ez du izan, atipikoa izan da. Herriko apaiza izanik, apaiz bizitza herritik kanpo egin dut. 1967tik 2000ra 33 urte pasa ditut lanean. Hastapenetan, kooperatiba batean, eta kooperatiba hori mundu berezi bat izan zen. Kooperatiba horrek SIADECO izena zuen, eta fase ezberdinak landu genituen, esaterako, soziologiaz, hirigintzaz, hezkuntzaz... arduratzen ginen. 1967an, gauza eta hutsune asko zeuden gizartean, inork heltzen ez zienak. Kooperatiba hori pribatu eta independentea zen, Lagun Aroekin lotuta aseguru, kotizazio... kontuetarako. Hor egin genituen lanak hirigintza, industriagintza, ikaskuntza, hezkuntza sailekoa, gizarte arlo ezberdinak...

Kooperatiba osatzen genuenak: hiru soziologo, asistente sozial bat, bi injineru... batzuek ez ziren aritzen egunero.

Kooperatiba sortu zen garaian, azken urte hauetan ezagutu dugun etxegintza booma errepikatu zen, herri txiki eta handiak hartu zituen, horrek ondorio bezala ekarri zuen izugarriko desoreka (*"el boom del ladrillo"*, espekulazioa...), tokatu zitzaigun momentu gogorak bizitzea, arkitekto, aparejadore eta horrelako jendeek ez zuten nahi inork eskurik sartzea.

Normalean udalentzat egiten genuen lan, Plan de urbanismo delakoekin. Gu lehiaketara aurkeztzen ginen eta gero beraiek hartzen gintuzten edo ez. Urte batzuk buru-belarri aritu ginen. Gero industriagintzan sartu ginen, eta hemen ere, gauza berdina gertatzen zen eta industrigintzaren degenerazioa ikusi

genuen. Hasieran perretxikoak bezala sortu ziren (metalak, fundizioak...). Egin genituen lan konkretu batzuk, osoak. Esaterako "Goierriko industriagintzako azterketa." "Arrasate eta bere etorkizuna"... Arrasate irakiten zegoen, ekimen berri ugari eta hemen ere zafarrantxo ugarirekin topo egin genuen. Jende interesatu asko zegoen, interes industrial jatorrak ez zeuzkatenak. Hori 1972an, lanean hasi eta bost urtera.

Lan fuerteena, "Goierrri garaia industriagintza bidean", 1974an. 1975 bitartean industri booma egon zen, baina handik aurrera goitik behera etorri zen dena, lan sakon eta exhaustiboa egin genuen. Pentsatu herriz herri aritu ginela eroldarekin lotuta edo familiaz familia. Beste ikerketak industriaz industri.

Azteturako beste arlo batzuk, janaria, zurgintza, papergintza, kimika, oinarriko metalgintza, metal lanketa... arlo hauetan guztietan azterketa zehatza, datuak jaso eta ondoren konparaketa egiten zen, urteen ebaluazioa... Gipuzkoa eta Goierriko datuak. Hemen egindako lana nobedadea izan zen.

Beste sektore batzuk, zerbitzuak: komertziala, ofizialak, herri zerbitzuak, lege zerbitzuak, sendakuntza zerbitzuak, zinea... Nola dago hornituta Goierriko bailara zerbitzuekin? Eta ondoren konparaketa egiten zen beste estatu batzuekin, indizeen bidez, eta ikusi zein mailetan zegoen.

Ikastolen sorrera hartan borroka handiak izan ziren, eta gure aldetik 43 zentro landu genituen: zona hiriritartua, nekazarria, tartekoa. Egoera sozio politikoak presioa baino gehiago babesa ematen zigun, gehien bat udaletako zinegotziek. Lege xelebre bat zegoen, hiru zinegotzi talde ezberdin hartzen zituena, politika, komertzio mundukoa eta familia gura-

soen ordezkariak (*"tercio familiar"*). Gu baliatzen ginen familia guraso horien laguntzaz, udaletan laguntza eskuratzeko. Hala ere, frankismo garaian, zenbait lekutan trabak topatu genituen. Holako jarrerak zeuden lekuetan, *"tercio familiar"* horien babesa eskuratzen genuen eta Goierrin bereziki.

1978an, gure lan nagusia, Euskaltzaindiak eskatuta, "Euskaren liburu zuria" egitea izan zen, eta bertan, kolaboratu zuen Euskaltzaindia inguruan ibiltzen zen jendeak. Guk euskararen ezagutzari buruzko azterketak egiten genituen, ahal genuen herri gehienetan, beste azterketa soziologikoekin batera.

1978tik aurrera beste mundu bat ireki zen, euskara oinarri hartuta eta euskararen ildo horretatik, estudio soziolinguistiko izena ematen genion bidea jarraitu genuen. Nobedadea izan zen eta Euskararen liburu zuria egiteak asko lagundu zigun, baina beharrak sortutako gauza bat izan zen, gu izan ginen azterketa soziolinguistiko haien aitzindariak. Komentatu behar dut, laguntzaile jantzia, ikasia eta irakasle bezala ere oso ona zena eduki genuela, Jose Maria Sanchez Carrion, "Txepetx" ezizena zuena. Pertsona horrek egin zuen teoria aldetik aportazio oso ona, eta berak emandako informazio teorikoa praktikara eramaten genuen. 1978tik 2000ra aritu nintzen horretan, 40 bat azterketa egin genituen Euskal Herri osoan. Azterketa soziolinguistikoek onarpen handia izan zuten, premia handia zegoelako. Orduan ez zegoen ezer euskararen bizi iraupena ziurtatzeko eta horri heldu beharra zegoen. Franco hil ondoren, euforia pixka bat bizi izan zen, hizkuntzaren indartzea etorriko zen esperantza piztu zelako.

Ni, 1996. urtera arte aritu, eta ondoren jubilatu nintzen, 63 urterekin, baina taldeak segitzen du lanean. ■

Iñaki Larrañagak egindako lan oparo guztia Wikipedian:
http://eu.wikipedia.org/wiki/I%C3%BIaki_Larra%C3%BIaga

emakume berdintasun plana

Hezkidetza



Itsasondoko herrieskolan, liazko urrian hasi eta abendura arte hezkidetza proiektu bat eraman da aurrera. Proiektu horretan, eskola komunitatea osatzen duten irakasle, ikasle

eta gurasoen parte hartzea izan da.

Hezkidetzaren bidez, haurren aukera berdintasuna bultzatu nahi da, horrela aurreiritziak eta estereotipo sexualak alde batera uzteko neurriak sustatuz.

Eskola komunitatea buru belarri inplikatu zen egitasmo horretan. Arratsaldean izaten zituzten formazio saioez gain etxerako lanak egiten zituzten; bai behintzat irakasle eta zenbait amek –Besteei hurrengo baterako gonbidapena egitea besterik ez zaigu geratzen.– Herri guztiarentzat interesgarria den ekintza dela uste dugu.

Bestalde, abenduaren 10ean hezkidetza proiektuaren zati horri amaiera egiteko asmoarekin festa bat antolatu zen, eskola, udala, guraso eta umeen parte-hartzea izan zen bertan. Haur eta gaztetxoek antzerkitxo batzuk egin zituzten ikasi zutenaren isla izateko asmoz. Irakasleek eta gurasoek, berriz, ikasi zutena azaldu ziguten eta Marijek –ikastaroa burutzen lagundu duen adituak– azalpen teorikoak eman zituen.

Hezkidetza inoiz bukatzen ez den prozesua izanik, hurrengo batean herri guztiaren inplikazioa eskatu nahi dugu lerro haue-tatik. Denon artean aukera berdintasuna posible delako. ■



Informazio gehiago:

<http://itsasondokoberdintasunsaila.blogspot.com/>

gazteria

Gabonetako ekintzak



Aurtengo gabonak pasatu dira eta Itsasondoko Udaletik, lehen aldiz, haurrentzat ekintzak antolatu dira. Haur eta gurasoen aldetik erantzun ona izan zuten abenduaren 28an hasi ziren ekintza horiek. Lehenengo egunean, bideo emanaldira guraso eta haur ugari gerturatu zen, eta ondorengo egunetan ere, berdina gertatu zela esan behar dugu.

Bideo emanaldiaren ondoren, Itsasondoko liburutegia eta Gaztelekua joko gune bihurtu ziren. Bertan, jolas komunitarioak egiten aritu ziren haurrak, baina ez hori bakarrik, izan ere sukaldaritzan ere murgildu baitziren. Erroskila bikainak egin zituzten, eta amaitzeko baita eskulan batzuk ere.

Horrez gain, herriko gazteentzat ere antolatu ziren ekintzak, lehen Ordiziako Gaztelekuarekin harremanetan jarrita, Bilboko PINera joan zen herriko zenbait gazte.

Gazteria sailetik, herriko gazteak Gaztelekura gonbidatu nahi ditugu, aurrerantzean egingo diren ekintza puntualetan parte hartzera, eta noski, edozein ostiraletan gure artean egotera. ■

gizartea

Elbarritasuna edo ezgaitasuna duten pertsonen ibilgailuen gaineko zergari salbuespenak



Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait zergatan aldaketak egin ditu. Horien artean elbarritasuna edo ezgaitasuna duten pertsonen ibilgailuen zergan.

2010 urtetik aurrera, ibilgailuen zerga salbuespena kasu horietan bakarrik emango da:

Horrez gain, baldintza batzuk bete behar dira, ordea, zerga ordaintzetik salbuetsia izateko. Eta baldintza horiei dagokionean eman da aldaketa. Hauexek bete behar dira baldintzak:

- 1.- Ibilgailuak beti 14 zaldi fiskaletik beherakoa izan behar du.
- 2.- Era berean, zerga ordaintzetik salbuetsiko dira elbarrituen izenean matrikulatuta dauden ibilgailuak, eta pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnak. Salbuespena, zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.
- 3.- Elbarritasun maila %33 eta % 65 artean dutenek mugikortasun baremoa izan behar du. Hau da, aparkaleku txartela izateko eskubidea izatea ezinbestekoa da.
- 4.- Bestela berriz, elbarritasuna %65koa edo gehiagokoa izan behar du.

Zerga ordaintzetik salbuesteko eskaerak udaletxean egin behar dira, honako dokumentazio aurkeztuz:

- 1.- Ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.
- 2.- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia
- 3.- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren ziurtagiriaren fotokopia.
- 4.- Gizartekintzak edo bere ordezkariaren erakunde edo agintari administratiboak luzatutako gutxitasuna kreditatzeko ziurtagiri originala.
- 5.- Ibilgailuaren erabilera eskusibo kreditatzen duen zin aitortpena.
- 6.- Gidatzeko baimena.

Eskaera zergaldiaren lehen eguna baino lehen egin behar da, urte horretan aplikatu behar bada. Zergaldiaren lehen eguna pasa ondoren egiten bada eskaria, salbuespena eskaera egiten den hurrengo urtetik aurrera aplikatuko da, eta inolaz ere ez du atzeraeraginik izango.

Ibilgailuaren lehen matrikulazioa edo erosketa bada, matrikulatu ondorengo 30 eguneko epean eskatu ahal izango da salbuespena, urte horretan bertan aplikatu ahal izateko. Aipatu epean ondoren egiten bada eskaera hurrengo urtetik aurrera aplikatuko zaio. Salbuespen eskaria lehenago mugikortasun murriztua duelako salbuespena eskuraturik duen pertsonak aldetik egiten bada, ibilgailu berri bat erosi duelako, eta lehenagotik duen ibilgailuari behin betiko baja ematen badiu, salbuespena baja-alta ematen duen hurrengo urtetik aurrera aplikatu ahal izango zaio.

Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela egiaztatzeko. ■

Abizenak euskal grafiaz jartzera animatzeko deia egin du udalak

UEMAk bultzatuta, *Guk abizena, zuk?* kanpaina jarri da martxan UEMako herri guztietan, eta noski, baita Itsasondon ere. Euskal abizenak modu ofizialean eta toki guztietan euskaraz izan nahi dituztenak urrats hori ematera animatu nahi dira. Hartara, *Arteche*, *Aguirre*, *Aurrecochea*, *Echenique* edo *Echeverria* aldatu eta *Artetxe*, *Agirre*, *Aurrekoetxea*, *Etzenike* edo *Etxeberría* bihurtzeko aukera izango dute interesatuek.

Izan ere, Itsasondoko telefono listina hartu besterik ez dago ikusteko zenbat eta zenbat euskal abizen dauden oraindik gaztelaniazko grafiarekin: *ch*, *c*, *qu* eta *gui* ugari dago oraindik, beste garai bateko arrasto baten moduan.

UEMAko Zuzendaritza Batzordearen ustearekin bat egin du Itsasondoko Udalak ere, "hizkuntza bateko abizenak beste hizkuntza batean idaztea ez da normala". Ekimenaren helburua normalizazioa besterik ez dela gaineratu dute kanpainaren sustatzaileek, eta gogorarazi dute hizkuntza normalizatuetan ez dela horrelakorik gertatzen: "Ingelesak *Shakespeare* idazten dute, eta ez *Xexpir*, eta espainolek *Cervantes* idazten dute eta ez *Zerbantes*. Nor gara euskaldunak horiek berri-dazten hasteko? *Aguirre* edo *Echeverria* abizenak baldin badira, zergatik ez *Agirre* eta *Etxeberría* idatzi, euskaraz? Ingelesak ala espainolak baino gutxiago ote gara, ba?"

Itsasondon, etxe guztietara helarazi da abizenak euskalduntzeko kanpainaren albistea; izan

ere, neguko UEMaren Berripaperean tarte bat eskaini zaio kanpainari, eta herritarrek beren postontzian jaso dute Berripapera. Horrez gain, herrietako toki esanguratsuetan (udaletxeetan, liburutegian eta tabernan) postalak jarri dira abizenak euskalduntzeko jarraibideekin.

Abizena euskal grafiara moldatu nahi dutenek hiru pauso hauek eman behar dituzte:

1.- Erregistro zibilerako edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.

Itsasondon, udaletxean bertan egoten da bake epaitegia zabalik, astearteetan 12:00-etatik 14:00-etara eta ostiraletan 9:00-etatik 11:00-etara.

2.- Han emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.

3.- Agiri hauek eraman:

- Nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
- Hitzek hitzeko jaiotza ziurtagiria (bake epaitegian bertan ematen dute)
- Errolda agiria (udaletxean ematen dute)
- Ezkondutan bazaude edo seme-alabarik baduzu, familia liburua.
- 16 urtetik gorako seme-alabarik baduzu, seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia.

Ikusten duzuen eran, ez da batere zaila egin beharrekoa, beraz, Itsasondoko Udalak dei egin die abizen euskaldunak erdal grafiaz dituzten herritar guztiei abizenak euskal grafiaz jartzeko.■



1.

Ezagutzen al duzu itsasondo 2.0 aldizkaria? ala bada, irakurtzen al dezu?

2.

Zer iritzi duzu aldizkariari buruz? Zein da gehien gustatzen zaizun atala?

3.

Zer gehitu edo kenduko zenduke?



MARIPAZ MOREDA, MARIAJE ETXEBERRIA, ARANTXA ARZA, AITOR GARMENDIA, MARIJOSE ARRATIBEL, ROSA ETXEBERRIA ETA MARIJOSE JAUREGI

1. Bai, ezagutzen dugu aldizkaria. Bai, irakurtzen degu.
2. Oso ona, interesgarria iruditzen zaigu. Gehiena herriko argazkiak eta herriko albisteak gustatzen zaizkigu.
3. Kendu ezerrez, gehitu herriko kexak agertzeko txoko bat eta iragarki laburrak gehituko genituzke.



JOANAN JIMENEZ

1. Bai ezagutzen dut aldizkaria; ulertzea kostatzen zait baina begirada bat botatzen diot eta nere emaztea da aldizkaria itzultzen didana, ni Kataluniarra naiz eta orain dela hiru urte etorri nintzen Euskadira bizitzera.
2. Aldizkaria ondo dagoela iruditzen zait; gehien gustatzen zaidan atala agenda eta argazkiak izaten dira.
3. Ez nuke ezer kenduko oso ondo dagoela iruditzen zait.

Aldizkariari buruzko iritziak



ANA MARI ARZA

1. Bai ezagutzen det aldizkaria eta bai dena irakurtzen det.
2. Aldizkaria oso ondo dagoela iruditzen zait; gehiena herriko berriak eta udalekoak gustatzen zaizkit.
3. Kendu ez nuke ezer kenduko, dagoen bezela utziko nuke.



AITOR GARRO

1. Bai, ezagutzen dut. Bai, gehienetan irakurtzen det.
2. Gehiena lehiaketa gustatzen zait.
3. Kendu Agenda21eko atala kenduko nuke. Gehitu berriz, soziedadean egin ahal izateko errezetak jarriko nituzke eta soziedadean egindako errezetak.

ODOLA:

Gu bizi behar badegu bearrezkoa degun gauza. Odol gabe geratu edo txartu ezkerro badakigu zer ondoren daukagun: eriotza.

Gizaldi asko dira egi horretaz jabetu zala gizakia, baina orren ordezkorik ez du oraindik asmatu.

Bai ordea beharren dagoenari besteen odola sartzea eta eginkizun au al dan eta ondoen eratzeko da ODOL EMAILEEN ELKARTEA.

Irurogehi urte pasatxo da, herriko mutil bat gaisotasunez jota zegoela eta garai artako Tolosako klinika batetik berari odola sartzea beharrezkoa zala jakin arazi zigutela.

Itsasondoko mutil sail bat bildu eta jo zuten Tolosara eta bertan, belarritik tanta bat edo beste atera (azterketa egiteko) eta urrengo egunean Donostiara joateko agindua jaso zuten. Inork atzera egin gabe, danak, "Instituto de Higiene" deritzan Ategorrieta aldera joan zien odola ematera. Garai hartako aurrerapenak azaltzeko, pelotan eskubie edo ezkerrean zan galdera egiten zuten errexena nondik atera jakiteko eta oraindik arrigarriagoa, duro bat edo bi, ordaintzen zuten.

Behar bada, azken au, izan zan gaurko elkarten bearra bultzatu zuena, bada baziran egun beren, bi tokitan ematen zutenak, jakina, dirua jasotzeko. Geiagoko azterketa gabe normala zan, gaixotasuna sendatzeko ordez, zabaltzeko era balio izatea zoritxarrez.

Gure Elkartea, Gipuzkoakoa ain zuzen, 1965eko Maiatzaren 27an sortu zan eta gure herrin, Itsasondon, 1971ko Apirilaren 15ean. Egun horretan, Donostitik etorri ziren, Erretore etxe azpira, zer zan erakustera eta lehenengo aldiz odola ateratzera. Orretarako, 25 ontzi ekarri zituzten, asko iritzita, eta 18 lagun gelditu ziren beste egun baterako ontzirik ez eta.

Ondoren ateraketak onako lekuetan egin dira:garai hartako Oargin(gaur Izaskun ostatu azpian); sendagile etxean, gaur Kaxintane dagon tokian eta azkenik Udal-etxeko aretoan.

Asiera asieratik eman zaizkie ogitarte-koak odol emaleei, lendabizi dendarien laguntzarekin eta ondoren jubilatutako emakumenarekin.

Orrela bada, 39 urte daramazkigu gure odola eskeiniz eta gainera kopurua aundiz.

Europako odol arloko jakintsuek, odol bearra ondo osatzeko, urtean, ehun biz-

tanleko 5 ontzi bear direla esaten dute eta Itsasondon, beti ori bikoiztu egin degu.

Azken denboraldian, urtean bi aldiz etortzen dira odol bila. Pasa berri dan urtean 68 ontzi eraman dituzte eta danera, hasi ginanetik, 2.827. Putzu ederra! 1.200 litro baino gehiago.

Garai batean, gizonezkoak geiago ziren emaleak, baina orain, berdintasuna iritxi ez ezik, borondate gehiagorekin azaltzen dira emakumeak eta gaur egun 31 emakume eta 26 gizonezko daude emale bezala.

Len urtetan denei ateratzen zitzairen bezala, gaur, askoz neurri estugokin eta obeto begiratuta ateratzen da. Orregatik, ateraldi bakoitzean, bat edo beste gelditzen da odolik eman gabe.

Elkartearen eginkizun nagusia, odola bear duten guztiak izan dezatela da eta orretarako, jakina, bildu egin behar da. Ez dakigu zein eta noiz izango den bearran baina inoiz izatekotan omen da ematea askoz hobea hartzea baino. Animatu zaitetz, eta 18 urtetik gora badi-tuzu, azaldu zure nahia edozein emaleari eta onek esango dizu noiz joan bear dezun eman dezakezun edo ez jakitera. Urrengo hitzordua apirilaren 26ean. ■

Odol emaleen elkarte



Ilunpetik argira

Gurutz Sarasola "Lotsati" (1915-1936) Itsasondon jaiotako poeta, Jose Manuel Sarasola eta Paula Martinezen bederatzii seme-alabetatik bigarrena izan zen. Hil ondoren, haren lanak itzal handirik izan ez zuen arren, azken urteotan hedapen zabalak hartzen ari da. Hari buruzko liburu bat idatzi berri dute "ilunpetik argira"; gutxi barru argitaratuko da, eta "Alvaro Rabelli" egileak azaltzen dizkigu liburu hori idazteko arrazoiak.



"Bada, bere lan osoa txukun jaso, bere bizitzako eta garai-ko testuinguru literarioan kokatu, koska berriak agertu, eta, ahal bada, lortutakoa zabaldu. Horratx lantxo honen helburua. Eta batez ere, Lotsatirekiko zorrak kitatu, familiarena lehenengoa, Lotsatiren oroimena harrotasunez jaso nahi duen familiarena, beraren ekimenez lan hau egiten baita. Bigarrena, gurea, Lotsatik leku bat izan dezan Itsasondoko Parnasoan, besteak beste, bere lehengusua izan zen Jexus Lete Sarasola "Ibai-ertz" eta Eustakio Mendizabal "Txikia" ren ondoan; edo Euskal Herrikoan, zergatik ez. Leku txiki bat baino ez bada ere. Eta hirugarren bat, ez orain Lotsatirekikoa, urrunegi joan gabe, itsasondoar guztiekikoa baizik, beraiek ere merezi dutelako Lotsati, Gurutz Sarasola "Lotsati" euren oroimenaren parte izateko beharra dutelako, guk denok dugun modu bertsuan."

Artikulu honetan, familiaren hurbiltasunetik, olerkariaren bizitza eta obraren azalpen laburra ematen du izen bereko iloba Gurutzek. ■



Itsasondon bere aitarekin, Jose Manuel.

Lotsati aitaren fabrikaren aurrean



Itsasondotik bultz, itsasondoarrak Ordiziako rugby taldean

Asko dira Itsasondon jaio eta inguruko herrietara bizitzera joan direnak. Aurrerantzean, Itsasondo 2.0 herri aldizkariak, tartetxo bat eskainiko die haiei, gure herriari buruz idazteko. Ale honetan, Jon Ander Gorospek hitz egingo digu, Ordiziako Rugby Taldean ibilitako itsasondoarren berri emanez.



Jubenilak 89-90 denboraldian.



Ordizia 4 - Aldapeta 0
"lehenengo garaipena"

"Aukera sortu zen, gustatu egiten zitzaidan eta... aurrera". Halaxe hasi zen errugbian jokatzen Joxemari Lete. Ordizian sortu berria zen Ordizia Rugby Elkartearen lehenengo itsasondoarra izan zen, baina ez bakarra. Lete ipurterrea zela, eta dela, jakina zen, eta halako batek soilik ekin ziezaiokeen halako kirol "aldrebes" eta arrotz batean jokatzeari.

"Herriko beste inor ez zen animatu. Nik 15 edo 16 urte izango nituen, 1975 edo 1976an. Urtarrila aldera hasi ginen, eta ez nuen denbora asko egin, urtebete edo. Gauza polita izan zen. Fulgenekin entrenatzen genuen, bera Donostia aldean jokatutakoa zen, eta berari tokatu zitzaion zekiena herrikoei erakustea. Legeak ere ez genizkian ezagutzen. Hi ladrillo! Ladrillo deitzen zian Fulgenek "azaltzen du Joxemari Letek.

Oroitzapen onak dit "Altzate aldera korrika joaten ginen, *fondoa* hartzeko edo. Gogoan diat eman ziguten kamise-

ta: "Urdina marra hori batekin" kontatu digu. "Pentsa zenbaterainoko gogor eta sendoak ziren kamiseta horiek, geu ere errugbian jokatzen hasi ginenean, 1980an edo, oraindik bizirik zeudela. Ez ziren hausten, baina bustitakoan lauzpabost kiloko pisua hartzen zuten! Teknika aldetik piperrik ere ez genekien, eta urtea eman genuen baloia nola pasatu ikasten eta *meleetako* teknika ikasten".

Beste kontu batzuetan ere aitzindari izan zen Lete, motokrosean, esaterako. Gauza berriak probatu zalea zen. Eta egia esan, sasoi hartan Itsasondon kirola egiteko aukera handirik ez zen izango. "Garai hartan, Itsasondon kirola egiten zutenak bizikletan ibiltzen ziren: karteronekoa, Joxekruz, Jexusmari Zabalua, Kandidotxo...saltsa ederra zegoen, karre-
ra ederrak egiten genituen Bekokamiñon..."

"80ko hamarkadan Ordiziako Murua tabernan jarrita zegoen argazkia ikusita-
koan konturatu nintzen ni, Ijittoren bat

bazela geu baino lehen Ordizian errugbian jokatutakoa. -Hau Lete dek, Bekokamiñokoa, ezagutzen?- galdetu nion alboan neukan Xabi Otamendiri. Ezagutuko ez diat ba! Otamendi, neu bezala, erdi ijitoa. Bidegainen bizitakoa, eta gero ordiziartutakoa. Jokatzeaz gainera, entrenatzaile lanak egitea tokatzen zitzaigun, autobusak eskatu eta direktibako lanak egitea ere bai, eta hor hasi zitzaigun agertzen itsasondoar gehiago, eskoletan egiten ziren "demostrazioen" ondoren klubera hurbiltzen zitzaizkigunak: Oteizabalgo Mikel, Xabi San Sebastián, Juan Manuel Pousada, Bene eta Dani Etxeberria..."

"Ni hamalau urterekin hasi nintzen errugbian jokatzen. Ordizian, Urdaneta eskolan, ikasten ari nintzen eta olinpiadetarako taldea osatu zuten, eta bertan sartu ninduten. Gero, klubean geratu nintzen, 19 urterekin utzi nuenera arte. Benedicto Nieto eta Dani Etxeberria elkarrekin joaten ziren Trevijanora entrenatzera. Oroitzapen



Txomin, lehenengo mailan.

onak ditut, oso onak. Urte asko izan ziren, eta aberasgarria izan zen. Jubeniletatik seniorretara pasa nintzenez, ordea, lotuagoa zela ikusi nuen. Ordura arte lagunartean aritu ginen, baina seniorretan denbora eta dedikazio gehiago eskatzen zuen errugbiak, eta utzi egin nuen. Orain, tarteka joaten naiz Ordiziaren partiduak ikustera, Trevijanora bai behintzat, baina Altamiran jokatzen hasi direnetik ez naiz joan” azaldu digu Danik.

Txomin Mendesek ere Itsasondotik Ordizirako bidea egin zuen, baina ez errugbian jokatzeke, saskibaloian baizik. Orain sei urte, ordea, saskibaloia uzteko-tan zegoenean, lagunak animatuta errugbiari ekin zion: “Lagunak hasi zitzaizkidan esanez errugbian jokatu behar nuela. Marco argentinarrak, Axiok... has-teko eta hasteko, animatu egin ninduten. Beti probatzeko gogoarekin ibili nintzen, eta saskibaloia utzi nuenean hasi nintzen. Bi kirolak gustatzen zaizkit, bietan egin ditut lagunak, baina errugbiak beste zer-

bait eman dit. Errugbian izan ditudan sentipen eta bizipenak ikaragarriak izan dira. Lehen taldearekin lehenengo partidua jokatu behar nuenean aldageletan Axioren beroketa egiten ari ginela sentitu nuena...”

Ordizian jokatzen hasteak aldaketa handia ekarri zion Txomini: “Itsason-don, badakik zer dagoen gazteentzat... Herri txikia duk. Ordizian lagun asko egin dizkiat, eta behin jokatzen hasita, Itsasondon jan eta lo besterik ez duk egiten...”

Ordiziako Rugby Elkarteko lehenengo taldearekin jokatzeraz ailegatu da Txomin, eta ikusita bere historiako unerik gozoe-na bizi duela, ez da txantxetarako kon-tua. Orain bi urte Ohorezko mailan jokatzeke aukera izan zuen Txominek, egun bigarren taldean ari da, eta gustura dago, erretiratzeko asmorik gabe.

“Lehenengo taldean jokatzeke espe-rantzta txikiren bat beti daukazu” dio, “Fisikoki gai ikusten dut neure burua,

agian esperientzia gehixeago izango banu... Eta egia esan, orain aukeratzoren bat sortzen denean, nik nahiago gazte-ren bati ematen badiote aukera hori, gazte horiek izango direlako etorkizune-ko jokalaririk. Gainera, bigarren taldea, iaz igo ondoren, maila politetan ari da. Ni lehiakorra naiz oso, eta maila honetan gustura ari naiz, eta taldeak gehixeago sinetsiko balu, erdi parean ez, goraxeago ere egongo ginateteke.”

“Errugbia bizitzarako eskolarik onena dela diote. Kirol lorpenez gain, batek, errugbia probatu duen edonork, urtetan gogoratuko ditu bertako esperientzia eta bizipenak. Eta bertan egindako lagunak, horiek betirako izaten dira.”

“Eta nola diren kontuak: nik daukadan horietako bat Itsasondon ikusten dut orain: Gus. Aranatarra dela ziur, izena ez dut gogoan, Gus izan baita beti guretzat. Honek ere makina bat urtean jokatu du errugbian. Batek daki zenbat pasadizo izango dituen kontatzeko!” ■



5. Ibilbidea

Itsasondo-Aldaba

Deskribapena: Itsasondotik irten eta Berostegi auzora (Legorreta) abiatuko gara. GR-35eko arrasto txuri-gorri jarraituz eta aldapa gogor xamarra igaro ondoren, Zumiztira iritsiko gara. GRak markatzen duen norabidea segituz, Santa Marinara eramaten duen errepide nagusira irtengo gara, aurretik, Burnikurutzetako Mugarri ondotik pasatuz. Bide gurutze horretan adi ibili beharko dugu. Bidani aldeko noranzkoan, errepide nagusiaren albo-alboan eskuinera dagoen bidexka hartuko dugu, horrek gorantz egiten du, itxitura batekin topo egin arte. Han ezkerreko bidea hartu eta hari jarraituko diogu, itxitura eskuinean utziz. Bidexka horrek, Lopetegi baserrira doan pista eramango gaitu. Horretarako pista eskuinera hartu behar dugu. Lopetegi baserrira heltzean, beherantz doan asfaltozko bidea hartuko dugu, Aldabaraino iritsi arte. ■



Iraupena: 2 ordu eta 45'

Ibilbidea:

Itsasondo-Zumizti: 60'

Zumizti-Burnikurutzeta: 45'

Burnikurutzeta-Lopetegi: 45'

Lopetegi-Aldaba: 15'

Aldaba-Ikaztegieta: 60'



01 Beroztegi auzoa



02 Zumisti



03 Murumendi



04 Legorreta zahar utzi



05 Burnikurutzeta mugarrria



06 Lopetegiko pistara



07 Lopetegiko pista



08 Aldabara inguratzen



09 Aldaba

Aste honetan zehar, Itsasondoko ingurune naturalaren eta landa eremuaren kontserbazioa helburu duten hainbat ekimeni hasiera eman dio Udalak.

Ekimen horiek azken urteetako lanen ondorio zuzena dira, izan ere, 2007. urtean hasi zen Goierriko Mendi Nekazaritza Elkarteak "Itsasondoko Landa eremuaren Hausnarketa Azterketa: lehen sektore eta natur baliabideen jasangarritasunerantzko gogoeta" lanarekin, eta 2008. urtean, Aranzadi Zientzia Elkarteak "Natura edota paisaia ikuspegitik garrantzi berezia duten guneen inbentarioa" egin zuen. Behin udalerriko ingurumenaren kontserbazio egoeraren diagnosis ezagututa, azken urte hauetan ikusirik hutsune eta premiak asetzea da momentu honetako helburua. Horretarako, Aranzadi Zientzia Elkarteak Botanika Sailak ingurumenaren kudeaketa jasangarria bideratuko duten ekimen konkrituak proposatu ditu eta horietako batzuk dira

aste honetan eta hurrengoetan aurrera eramango direnak.

Batetik, Oria ibaiaren ibar-basoaren errehabilitazioa eta flora exotikoaren erradikazioarekin jarraitu da (iaz hasi zen ekimena). Horretarako, ibaiak herria zeharkatzen duen zatian, sasia garbitu eta zuhaitz espezie desberdinak landatuz, toki horri dagokion habitata berreskuratu nahi izan da, haltzadia hain zuzen ere.

Aurretik egindako flora exotikoaren erradikazio lanengatik eta gauden garaigatik ez da landare exotikorik nabarmentzen aipatutako zati horretan, baina, berreskuratu nahi den haltzadia aurrera atera dadin, beharrezkoak izango da erradikazio lanekin jarraitzea aurrerantzean ere.

Bestetik, udalerriko landa eremuko kontserbaziorako ekintzei ere hasiera eman zaie. Izan ere, azken urte hauetan, landa eremuko paisaia asko aldatzen ari da, baserriaren erabilera tradizionalen uztearen ondorioz. Hau dela eta, garbi-

keta eta landaketa lanen bitartez "kanpina" deritzon paisaia tradizionala berreskuratu nahi da udalerriko guneez berdin.

Landa eremuan, izaera naturaleko habitata (basoak) izaera seminaturaleko (sega-belardiak, fruitu arbolak, heskaiak...) habitatekin uztartzen dira. Horiek guztiak mosaiko egiturako paisaiak eratzen dituzte eta biodibertsitate aldetik berebiziko interesa dute. Beraz, baserriarrek, paisaia eta biodibertsitatearen zaintzan duten garrantzia kontutan izanik, ezinbestekoa da horien parte hartze aktiboa ere laguntza eta erraztasunak emanez.

Ekimen horiek guztiek, udalerriko ingurunearen kalitatea areagotzea ekarriko dute, baina aldi berean, garrantzitsua da epe luzean lanak direla aipatzea, hau da, ingurune natural eta landa eremuaren kudeaketa jasangarri bat eskatzen dute, guztiona den ondarea zaindu eta mantenduko badugu.■

Itsasondoko ondare naturalaren kontserbaziorako lanak abian dira aurten ere



Ziklo-krosa

Aurten ere, azken urteetan bezala, 10. ziklokros proba antolatu dugu Ijitto Kirol elkarteak.

Arazoak arazo urtarrilaren 17rako jarri genuen hitzordua, eta eguraldiak azken asteetan asko lagundu ez bazuen ere, lasterketako egunean eta aurreko astean behintzat errespetatu gintuen.

Aurten krisi ekonomikoa dela eta, 7.000€ko aurrekontua betetzeko arazoren bat edo beste eduki badugu ere, osatu dugun lantaldeak lasterketa aurrera ateratzea lortu dugu. Eskerrak eman nahi dizkiogu babesle bila eta lasterketa antolatzen ibili garen lantalde guztiari, dozena bat lagunek osatutako asteazkenetako bileretako lantaldeari (ez dut izenik esango, bakkarren bat ahaztuko zaidalako), haien lanik gabe ez bailitzateke ziklokrosik egongo.

Eskerrak eman era berean, egunean bertan bidegurutzeetarako, gauzak antolatzeko eta jasotzeko egon zen jende guztiari (50 lagun inguru). Zuek gabe ere ezingo litzateke horrelako lasterketa bat antolatu.

Lasterketaren arian antolakuntzatik Estatu mailan punta puntan zeuden lasterkariak ekartzen ahalegindu gara, eta uste dut, ia maila guztietan lortu genuela.

Elite mailan goi mailako txirindulariak ekarri genituen Javier Ruiz de Larrinaga, Egoitz Murgoitio, Isaac Suarez... eta azkenean, oso lehia estuaren ondoren Isaac Suarez kantabriarra izan zen nagusi, bigarren Ruiz de Larrinaga arabarra eta hirugarren Egoitz Murgoitio bizkaitarra.

Jubenil mailan jaun eta jabe Estatuko txapelduna, Jon Ander Insausti mutiloarra, izan genuen.

Kadete mailan ere beste mutiloak bat. Peio Olaberria izan genuen garaile. Aurreko astean Estatuko txapelketan eroriko batek kendutako garaipena lortu zuen. Aipatzekoa kadete mailan herritar batek ere parte hartu zuela, Eriko Mujikak, eta itxura polita eman zuen hasi berria izateko. Osabaren bidetik jarraitzeko ere ez du aukera txarra egin.



Master lasterketan ere beste goierritar bat izan genuen garaile Xabier Mendaraz zaldibitarra. Kategoria horretan izan genuen parte-hartze handiena, 43 parte-hartzaile izan genituen.

Kategoria guztiak batuz gero 140 bat parte-hartzaile batu genituen Itsasondoko proba horretan.

Urte askotan pedalei eragiten aritu zaigun Mikel Gaztañagaren azken lasterketa izan zen. Ziklokroseko lantaldean egonda esfortzu bat egin zuen eta lasterketan parte hartzea erabaki zuen, bere agurra herrian emateko, bere zaleen aurrean. Antolakuntzak sari berezi bat eman genion eta gustura joan zitzaigun etxera azken lasterketa amaituta.



Ijito eguna

Itsasondo Ijito herria izanik, nola ez, Ijito eguna behar bezala ospatu beharra zegoen. Horretarako itsasondoarrak otsailaren 6an, arratsalde partean, herriko plazan elkartu eta herriko kaleetan zehar ibili ziren. Giro bikaina eta talde polita bildu zen; nola ez, eguna ondo amaitzeko eta indarrak berreskuratzeko afari merienda izan zuten pilotalekuan.



Talo festa



Abenduaren 12an, Talo festa ospatu genuen Itsasondon. Arratsalde iluntze aldera suak, ontziak eta zartaginak kea botatzen zeuden jada, eta bertan, talogileen joan-etorri eta mugimendurik ez zen falta. Ordurako eskulanetako taldeak beraien lanak ikusgai zituzten pilotalekuan.

Iluntze aldera, jendetza gerturatzeko hasi zen eta talo saltsa abian zen, nahi adina talo goxo jan ahal izan genuen. Taloaren ondoren, urteko kultur ekimenetako argazkiekin egindako DVDa ikusi ahal izan genuen.

Batetik, beste behin herriko talogile eta laguntzaileei eskerrak eman beharrean gara, beraiek gabe ezinezkoa izango zelako jai hura aurrera eramatea. Bestetik, eskulanetako taldeari barkamena eskatu nahi diogu, argiak itzali zirenez beraien lanak behar bezala ikusi ezin izan zirelako.

Azkenik, Talo-festari bildutako dirua Haitira laguntzeko bideratu da.

Santa Ageda



O hiturari jarraituz Santa Ageda bezperan eskolako haur eta gurasoek hitzordua zuten; arratsaldean elkartu eta bertsolari eta trikitalariek lagunduta herrian zehar ibilbidea egin zuten koplak abestuz.

Argazkian ikus dezakezuen moduan talde polita elkartu zen Santa eskean.

Olentzero



A rgazkiei so eginez ikus daitekeen moduan, Olentzerok aurtengoan ere ez zion bere zitari huts egin, eta ilusioz eta opariz beteta etorri zitzaigun Itsasondora.



BI MARRA

Jasone Osoro




Haurdun testean bi marra arrosek haurdun zaudela konfirmatzen dizutenetik, bizitza iraultzen dizun mendi errusiarrean sartzen zara. Gehiegizko informazioak

kezkatu egiten zaitu, zure barruan hazten ari den haurrak denetik eragiten dizu: poza, beldurra, dudak, ilusioa, galderak. Alaba izatetik ama izatera pasatzen zara eta badirudi hori helduen mundurako sarrera dela. Ezbairik gabe, amatasuna bizitza aldatzen duen esperientzia berdingabea da.

Jasone Osorok, bere bizipenen bidez, ama guztiek bizi duten emozio eztanda hori era hunkigarrian bildu du bere lehen haurdunaldiaren kronikatik abiatu duen kontakizun xamur honetan.

AUTOKARABANA

Fermin Etxegoien



Fermin Etxegoienen lehen eleberrri honetan mundu garaikidea ageri da, errealismoz erakutsia. Protagonistak lan egiten du herri bateko kooperatiban, eta zenbait tramaren erdian aurkituko du bere burua. Esperientzian oinarrituriko literatura da, egungo familia zein laneko bizipenak jasotzen dituena. Elkarren artean gurutzatzen diren gertakizunek, erritmo bizian kontatuak, irakurlearen arreta hasieratik bereganatuko dute, eta espero ez duen amaierara eramango.

LA CASA DEL PROPOSITO ESPECIAL

John Boyne



“Pijama marradunaz jantzitako mutikoa” nobela arrakastatsua- ren egilearen nobela berria dugu hau.

Hilzorian dagoen Zoya emaztea Londreseko ospitalean laguntzen duen bitartean, Georgik elkarrekin eramandako bizitzaren errepaso eta gogoeta egiten du; inoiz azaleratu ez den sekretu batek gidaturiko bizitza hain zuzen ere.

EL TIEMPO ENTRE COSTURAS

Maria Dueñas



Azkeneko urteetako nobelarik esanguratsu eta arrakastatsuenetakoa dugu hau; publikoa bereganatu du eta dagoeneko 13. edizioa argitaratu du.

Sira Quiroga jostun gazteak Madril uzten du gerrate aurreko hilabeteetan, eta amodioak bultzaturik Tangerra bidea hartzen du. Tangerren gauzak okertzen dira eta hiria utzi eta bakarrrik Tetuanera abiatzen da, bizitza berri bat hasi asmoz. Bertan jostungintza bide harturik, Marokoar gizarteko pertsonai esanguratsuen bizitzan sartuko da; jostun izate soilari utzi eta abentura arriskutsuan sartuko da.

SANGRE DERRAMADA

Asa Larsson



2009ko nobela beltz onenaren saria jasota dator liburu hau guregana.

Kiruna izeneko Suediar herrian, Mildred izeneko emakumezko apaiz Luterarra hilik topatzen dute. Hilketaren horren atzean Kiruna herri hotz eta lasaiko biztanleek ezkututzen duten bestelako egia gordina azaleratuko da.

(lorezaintza gomendioak)

Phalaenopsis

Orkidea barietate asko daude, baina denetan ezagunena Phalaenopsis izenekoa dugu.

Bere zainketa hasieran zaila eta konplexua iruditu arren, emandako aholkuak jarraituz gero, landare ederrak eta lorez beteak lortuko ditugu.

Argia:

Leku argitsu batean kokatu behar da landarea, argi faltak eragiten baitio askotan lore berririk ez ematea. Leiho baten ondoan kokatu, posible bada hegoaldera begira, eta eguzki printze zuzenak iristen diren lekuan.

Temperatura:

Klima epeleko landarea denez 15 eta 30 gradu artean ondo hazten da. Aire korronte hotzetatik babestu behar dugu, horrek loreak erortzea eragiten baitio askotan.

Ureztatzea:


Substratua umel mantendu behar da, baina inoiz ez urez itotzeraino. Neguan, 10-12 egunetik behin ureztatuko dugu, eta udan, astean behin gutxi gorabehera. Ez utzi inoiz sustraiak uretan, landarea ito egingo zaigulako. Ez erabili ur gogorak (iturriko ura). Hoberena litzateke ur destilatua edo desmineralizatua erabiltzea (euri ura).

Substratua:

Erabili beti orkideentzako dauden lur bereziak, oso garrantzitsua baita ondo drainatzea.

Ongarria:

Ahal izanez gero, erabili landare hauentzako bereziki dauden ongarriak. Orkideak ez dute elikagai asko behar, beraz, ongarri gehiegi botaz gero landarea erre egingo genuke, agian hiltzeraino. Otsaila eta uztaile artean, hilean behin; eta beste hilabeteetan, 2 hilabetez behin. Barruko landareen ongarria erabiltzen badugu, kontzentrazioa erdituko dugu.



**Maixabel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40**



(errezeta)

Berenjena milorria oregano saltsarekin

Osagaiak:

2 berenjena
2 tomate
250 gr. perretxiko
8 gazta xerrak (trantxeteak)
Litro ½ esnegain
Oregano txikitua
Gatza, olio, azukrea, arrautzak, irina

Prestakuntza:

Hasteko, berenjena zentimetro erdiko lodierako xerra boro-biletan moztu, xerrak irinetatik eta arrautzetatik pasa ondoren, oliotan frijituko ditugu.

Eta beste alde batetik, perretxikoak zartagin batean, olio tanta batekin egin (bakoitzari behar duen gatza botata).

Platera prestatzeko momentuan, metalezko uztai formako molde bat behar dugu. Barruan osagaiak sartzen hasi, txandakatu: aurrena berenjena xerra bat, gero tomate xerra bat, gero gazta xerra bat eta perretxiko batzuk; eta berriro beste berenjena xerra bat, tomate, gazta... berenjena xerra batekin bukatuz.

Oregano saltsa egiteko, eltze batean jarriko ditugu litro ½ esnegain, gatza, azukre pixka bat eta txikitutako oregano, eta sutan utziko dugu loditzen den arte.

Bestetik, prestatu dugun milorria labean sartuko dugu, berotu eta gazta urtu dadin; gero, moldea kendu eta oregano saltsaz estaliko dugu; eta platera jateko prest izango dugu.



**Jose Ignacio Duhau
Rubiorena Jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60**

Lehiaketa mundiala

Akatsarik ikusten al duzu argazkian?
Anima zaitetze eta parte hartu zozketa berezi batean!

Gure helbidea:
Itsasondo2.0@itsasondo.net



Lehiaketaren irabazlea:
Aintzane Otegi

Zorionak!!!



itsasondo 2.0

Herriko aldizkaria (((8. zk))) apirila-ekaina 2010

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:



Jon Ander Gorospe
Unai Agirre
Maite Lasa
Belen Mendizabal
Jose Ignacio Duhau
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Haizea Arruti
Danel Etxeberria
M^a Jose Arrizabalaga
Iker Mendizabal
Gorka Martinez
Miren Seguro
Rosi Noguera
Iñaki Erauskin
Alaitz Aierbe
Ainara Urteaga
Amaia Apaolaza
Zuberoa Jauregi
Luis Aizpuru
Eskolako umeak
Gurutx Olaskoaga
Yoana Garcia
Mari Azpiroz
Gorka Telleria

Esaera zaharrak

*"Alferrarentzat jana eta langilearentzat
lana ez da inoiz faltako".*

*"Apirilaren azkenean,
hostoa haritz gainean".*

*"Dagoenean par-par,
ez dagoenean negar".*



Kultur Agenda

Apirila

- 6-9: Haur eta gazteentzat ludoteka.
- 16: Bertso afaria.
- 25: Mendi irteera.
- 26: Odol emaileak.

Maiatza

- 1, 2 eta 3: Urkiko jaiak.
- 2: "Lotsati"-ri omenaldia.
- 9: Herri Urrats.
- 14: Sexualitatearen inguruko hitzaldia.
- 21: Antzerkia, arratsaldean haurrentzako eta gauean helduentzako emanaldia.
- 29: Mountain-bike irteera.

Ekaina

- 5: Oriora mendi irteera.
- 12: Gazte eguna.
- 19: Eskola festa.

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua:
SS-297-2010

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
EKAINEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN.**